



«Lehen... eta...»

LEHEN ETA ORAIN

LEIZ

«Erreterian bizi naiz eta,
egin zaidazu bixita...»

Ez goaz, noski, ezagutu ez genduan Xenpelar'en denporako erria aipatzera. Ezin bai gera, Komentuko kaxkotik behera aurkitzen zen aterpean exeri, ta patxaratu, orduko lau kaleci begira lasai egon. Ezta ere, Azkenporturaino iristen ziren itsas-ontziak ikusten ditugula ames egin...

Baina, gaurkoa aztertzeko, nahi ta ez oroitu behar, gure garaian gertatuak diran aldaketa izugarriak.

*Mojetatikan begira nago,
ara or, Erretereria!
jarri ta nago dirudiala
zoztorrez gainka, zartaia!*

Zenbat urte ote dira, Luis Sanperio erritar osagile ta idazle jatorrak, «Greguerias» aietan iritzi ori eman zigula? Berrogei...? Berrogei ta bi...?

Ba zuan behintzat orduan, begirada batez erri osoa begiztatzeko ikuspegia. Gaur egun, orde, ezin ba egokirik aurkitu. Zartai aren ertzak goruntz eginak dira, ta ara nun pertza sortu. Gal-gal ari den pertza, gainezka dijoan pertza... Aundi ta itsusia.

Zehar-meharka astiro, erri barrendik igarotzen zen Oarso ibaiari, gorontza ipini zitzaion, ta... tantai ederrekiko Zumardi Aundia galdu gendun. Jolastoki ta arnastokia ziplatu ziguten... Ba genduan zabaldia, Etxe Berrietan,

ta etxez bete zuten; geroztik, ezin ume ta gazteak pelotaren atzetik ibili. «Lagun Artca»k jokatzten zuan ostiko-zelaia ere or genduan Olibet'eko ondoan; zer nolako etxe aundiak sortu diren bertan...! Markola'k enbor ta tronkoak zituen tokian, gordeka ibili izan ginan; Alaberga'ko soro ta zelaietatik barrena, goraino igo Pasai'ko portuari begira egon ere. Nun ditugu Basano ta inguruko basetxeak...? Guzti orren barruan, zenbatu ezin ala kale berri sortuak dira. Arramendi'ra ere johan gindezkean, sagardoaren aitzekian ibilalditxoa egin ta arnas artzera... Ta orain...?

Lehen zortzi mila ginen; gaur, berrogeitik gora, zenbat...? Ta, guztiok pertzaren barruan, irten ezinik, mugatuta, elkarren ganka. Ezagunak, gutxi baizik ez ditugularik...

Garai artan, ba genituan, beren xelebrekiekin alaitzen ginguztenak: Lairon ta Aldako, Argarate ta Txingurri, ta nik dakit beste zenbat. Zerbait berezi egitearren, astokumea jatera bildu ziran gizon prestuak...

Gaurkoan, denok betilun. Gutxi baina, angulak ere arraintza zitezkean erri barruko ibaian; gaur, kiratsa baizik ez...

orain...»



Bizitzaren berri dakiten ta ikasten ari diran jakintsuak, txingurrieci begira egonak dira. Gelditu gabe, beti lanean, lerroka, alkarren ondoren dabiltzan xomorroi begira gogotsu egonak dira... Ta, zer ohartu ote? Nahi ainbat toki ez dutenean, denak urduri, ezin egonik, agertzen direla. Baina... toki ori, oraindik ere estutzen ba zaie, zoraturik, alkarri egiten diotela! Ez ote zaigu beste oinbeste gertatzen?

Ez dugu behar ainbat toki; ez gera kabitzen... Tarterik ere utzi gabe, etxez bete dugu erria. Gaizki diot; kaiolaz esan behar nuen. Oso bizitza txikiak egiten ditugu; ez diteke barruan, ez atsedetik, ez pakerik. Giroa txartutzen bada, eta ezin ona izan... ezin etzekoen artean gorde, tximista ta trumoiak auzokoei entzun arazi gabe. Paperezkoak bait dira, bizitza arteko ormak... Ormak? Ezin ba, kabian goxo egon, lanetik nekatuta datorrena; ezin, umee-kin burrukan jarduna den emaztea... Bizi, onela; ta il-dakoan? Ba dira noski, Erreterian, zerraldoa leiotik atera beharreko bizitzak ere.

Lehenagokoak etzutela toki zabalagorik? Zenbait borda, askozaz txikiagoak zirela? Ta, biran zuten zabaldia? Arnas artzeko zabaldia?

Eztago ba! garaikoak gera, ta aurrerakuntzaren menpeko gera. Eguzkiari ere jaramonik egin gabe, oiloak bezalaxe kotaratu behar, goizean ohitu baino lehenago jaiki beharragatik. Lanari ekin, tutuaren otsean. Bazkaldu presaka, ta berriz ere lanera. Ta, irabazitako pakean atsedeten egon nahi dugunean... nun baina, nun?

Guztieri berdin gertatzen zaielako, norabait abiatu ezker, oztopoka gera, denok toki berera goazelako. Iges egin behar, ta nora? Pertzaren barruan gaudenok, nora? Opor aldian baizik ez gindezke urrutiratu. Ta orduan? Auzokoak eta gu, aiek eta besteak, denok... txingurri mendiak diruditen ondartzetara, edo ta orretarako gertu dizkiguten tokietara goaz, artaldea bezala. Ez ote dugu, nortasuna galdu?

Egun batzuetan Arantzazu'n egona nauzue; baina, inor gutxi zen garaian. Ango pakea, ango ixila...

Afaldu ta bereala, ezin ba oheratu, ta or noa... Oteitza'ren gizonak, zut-zutik, irmo... Ordulariak baizik etzuan ixila urratzen. Ortzean izarrak ditzari... Egilea somatu zitekean.

Garaiko gerala aipatu dut lehen. Ta, noizean behin igesaldiren bat eginarren, pertzaren barruan behar.

Madalenetan gera; jaietan. Alkarren gainka bederik, ospatzea dagokigu. Ta pertzaren barruan, gainezka, galgal ibili behar dugu, errikoaz gainera, auzokoak ere barruan ditugula. Gora biotzak!... uxatu oroitzapen ilunak, ta aupa! Gero ere, izango ditugu betilun egoteko egunak. Zorionak ba, zorionak...!